**Julio BEOBIDE**
***Doloreetako***
***Ama Birjina / Dolorosa.***
Hacia 1950 ingurukoa



**Quintín de TORRE**
***Done Joan / San Juan***



# *Quintín de Torre eta Julio Beobide, bi euskal imajinagin*

Quintín de Torrek eta Julio Beobidek -maisua lehena eta ikaslea bigarrena- egindako erlijio eskultura multzo bat aurkeztuko du Arabako Arte Ederren Museoak erakusketa txiki honetan.

*Quintín de Torre* (1877-1966) Bilboko eskultore bat izan zen, Novecento-ko belaunaldia izenez ezagutzen den taldekoa, eta errealismoaren eta idealismoaren artean dagoen estilo batean koka daiteke. Bilboko Arte eta Lanbide Eskolan eta Serafín Basterraren lantegian hasi zuen bere prestakuntza. Hainbat pentsio lortu zituen, nola Bizkaiko Aldundiak hala Bilboko Udalak emanda, eta haiei esker bidaiatzeko aukera izan zuen, baita prestakuntza jasotzeko Bartzelonan, Parisen eta Italian, eta garai hartako mugimendu artistiko eta estetikoak ezagutzeko ere. Nahiz eta bere gaztaroan eta lehen helduaroan hurbil egon planteamendu berritzaileagoetatik eta gizarte arlokoetatik (halaxe ikus daiteke museoko bildumako beste lan batean, hau da, *Ferrero*n), bere bilakaeraren ondorioz espiritu klasiko bati jarraitu zion gero, Italiako berpizkundeari eta Gaztelako eskultura polikromatuari lotua. Joan den mendeko 20ko hamarkadatik aurrera, Torrek erlijio eskultura landu zuen Espainiako tradizioaren, barrokoko imajinagintzaren, oroimen oso argiarekin. Alderdi horretan kokatzen dira Arabako Arte Ederren Museoaren bildumaren zati diren hiru piezak.

Kaobaz egindako gorputz erdiko tailua da *Done Joan*. Jesusen dizipulurik begikoena gizon gazte gisa aurkezten da, hazpegi finekin eta edertasun kasik idealizatuarekin, eta ezaugarri horiek eta haren anatomiaren lana, batez ere saman eta bularrean, oso bestelakoak dira.

# *Quintín de Torre y Julio Beobide: dos imagineros vascos*

El Museo de Bellas Artes de Álava presenta en esta pequeña exposición un conjunto de esculturas religiosas realizadas por Quintín de Torre y Julio Beobide, quienes a su vez fueron respectivamente maestro y discípulo.

*Quintín de Torre* (1877-1966) es un escultor bilbaíno que pertenece a la llamada generación novecentista y que se puede encuadrar dentro de un estilo que oscila entre el realismo y el idealismo. Inicia su formación en la Escuela de Artes y Oficios de Bilbao y en el taller de Serafín Basterra. Obtiene distintas pensiones, tanto de la Diputación de Vizcaya, como del Ayuntamiento de Bilbao lo que le permitió viajar y recibir formación en Barcelona, París e Italia y conocer los distintos movimientos artísticos y estéticos del momento. Aunque en su juventud y primera madurez está próximo a planteamientos más novedosos y cercanos a la temática social (como se puede observar en otra obra de la colección del Museo, *Ferrero*), su evolución le lleva después a seguir un espíritu clásico, vinculado al renacimiento italiano y a la escultura policromada castellana. A partir de los años 20 del siglo pasado, Torre va a cultivar la escultura religiosa policromada con un recuerdo muy claro de la tradición española, de la imaginería barroca. En esta vertiente se encuadran las tres piezas que forman parte de la colección del Museo de Bellas Artes de Álava.

*San Juan* es una talla de medio cuerpo realizada en caoba. El discípulo favorito de Jesús se presenta como un hombre joven, con rasgos finos y de una belleza casi idealizada, lo que contrasta con el importante estudio anatómico, especialmente en la zona del cuello y del pecho.


Arabako Arte Ederren Museoa
Museo de Bellas Artes de Álava

Frai Francisco ibilbidea, 8 / Paseo de Fray Francisco, 8 • Tel. 945 181 918 • E-mail: museobellasartes@alava.net • 01007 VITORIA-GASTEIZ

Bigarren lan *Nicodemus*en, aurpegiaren adierazkortasuna da ezaugarririk deigarriena. Kristo lurperatzen lagundu zuen fariseua gizonezko heldu gisa irudikatzen du Torrek, hazpegi fisiko oso markatuekin, eta halaxe ikus daiteke haren bekoki handiari, sudur irtenari, begi handiei eta haren ezpainera hain adierazkorrari erreparatuz gero. Lanak mugimendua badu da sorbalden jarrerengatik eta hura estaltzen duen eta oparoki polikromatua dagoen tunikaren tolesengatik.

Hirugarren lana, *La Verónica*, 2010ean eskuratu zuen museoak. Ebanjelioaren irudi bat irudikatzen du berriz ere, eta oraingoan, Gurutze Bideak iraun bitartean izerdia eta odola garbitzeko Kristori mantelina eman zion emakumea. Kristoren hazpegiak inprimaturik gelditu ziren oihalean. Artista honek 1923an, Madrilgo Artearen Lagunen Elkartean, egindako banako erakusketan erakutsitako lanetariko bat da. Marmolean eta zurean polikromaturiko buruak baino ez ziren erakutsi, eta eskultoreak ezagutza garrantzitsua lortu zuen. Lanak emakume gazte bat erakusten du, burua eta bularra estaltzen dizkion mantelinarekin, non aurpegiera tristea nabarmentzen den, hau da, tristura eutsi bat, indartu egiten dena behe begiradarekin, begiak ia itxita. Errealismoak eta adierazkortasunak nabarmentzen du lana, mantelinaren polikromia, urdin bizian, lagun.



**Quintín de TORRE**
***Nicodemus***
Hacia 1938 ingurukoa

*Julio Beobide* (1891-1969) *belaunaldi odolustua* izenez ezagutzen den taldekoa da, hango kideek zuzenean pairatu baitzituzten Gerra Zibilaren ondorioak. Zumaian (Gipuzkoa) jaio zen, Barakaldon hasi zuen bere prestakuntza, Asorey galiziar eskultorearekin, eta Gasteizko Elizbarrutiko Tailu eta Modelatze Eskolan. Quintín de Torrek Bilbon zeukan estudiora joan zen 1910ean, eta hark sakon eragin zion erlijio eskulturan jardun zedin. *Doloreetako Ama Birjina* -huraxe da aurkezten den lana- zurean tailaturik dago, polikromatu gabe, eta eskultoreak teknika zein ongi menperatzen zuen erakusten du. Lanaren hunkiberatasuna da ezaugarririk deigarriena, aurpegieran ikus daitekeenez. Tunikaz eta mantelinaz estalia dago, toles askorekin, horrek larri-min sentsazioa areagotzen duelarik, baita Ama Birjinak eskuak gurutzatuta izateak ere. Lanak fideltasunez islatzen ditu artistaren erlijio eskulturaren ezaugarriak, eta horri erantsi behar zaio artistaren beraren erlijiozaletasuna, bere lanei indar espiritual handia ematen zien eta.

En la segunda obra, *Nicodemus*, lo que más llama la atención es la expresividad del rostro. Torre representa al fariseo que ayudó a enterrar a Cristo, como un hombre de edad madura, con unos rasgos físicos muy marcados como se aprecia en la frente abultada, la nariz prominente, los ojos grandes y el rictus de la boca muy expresivo. El movimiento de la obra se consigue por medio de la posición de los hombros y los pliegues de la túnica que le cubre, ricamente policromada.

La tercera pieza, *La Verónica*, ha sido adquirida por el Museo en 2010. Representa nuevamente una figura evangélica, en este caso la mujer que durante el Vía Crucis tendió a Cristo un velo para que enjugara el sudor y la sangre. En la tela quedaron impresas las facciones de Cristo. Es una de las obras que participó en la exposición individual de este artista en noviembre de 1923 en la Sociedad de Amigos del Arte de Madrid. Sólo se expusieron cabezas policromadas en mármol y en madera y el escultor obtuvo un importante reconocimiento. La obra muestra una mujer joven con un velo que le cubre tanto la cabeza como el pecho y donde sobresale la expresión de tristeza del rostro, una tristeza contenida que se ve reforzada por la mirada baja, con los ojos casi cerrados. La obra destaca por el realismo y la expresividad a lo que ayuda la policromía en azul intenso del manto.



**Quintín de TORRE**
***La Verónica***
Hacia 1923 ingurukoa

*Julio Beobide* (1891-1969) pertenece a la conocida como *generación desangrada* ya que sus componentes sufren directamente las consecuencias de la guerra civil. Nacido en Zumaya (Guipuzcoa), inicia su formación en Baracaldo con el escultor gallego Asorey y en la Escuela de Talla y Modelado de la Diócesis de Vitoria. A partir de 1910 acude al estudio de Quintín de Torre en Bilbao, quien le influirá profundamente en su dedicación a la escultura religiosa. *Dolorosa*, la pieza que se presenta, está realizada en madera tallada, sin policromar y muestra el gran dominio de la técnica del escultor. La obra destaca por la gran emotividad como se ve en la expresión del rostro. Aparece cubierta con túnica y manto con abundantes pliegues que incrementan la sensación de angustia y de dolor, lo que se refuerza con las manos entrelazadas de la Virgen. La obra refleja fielmente las características de la escultura religiosa del artista a la que se añade la profunda religiosidad del mismo imprimiendo en sus obras una gran intensidad espiritual.

Lege Gordailua • Depósito Legal: VI-76/14